

TABAKALERA



EGONALDI DEIALDIA: PROIEKTU ARTISTIKOA

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eus



1. AURKEZPENA

Tabakalerak, sorkuntzarako gunea den aldetik, nazioarteko egonaldi-programa bat du, artista, sortzaile eta kultur eragileei babesa emateko. Programa honen helburu nagusia arte-prozesuetan laguntzea da, bai kontzeptuarekin bai ekoizpenarekin.

Programa honen eta Tabakaleran dauden beste batzuen bitartez, espazio bat sortu nahi da askotariko eragileak eta beren proiektuak elkarrekin bizi daitezen, eta, hala, egoiliarrek eta eragile gonbidatuek elkarrekin lan egiteko aukera izan dezaten.

Tabakalerako kultur programak lan-ildo zehatz batzuk garatu ditu, mundu garaikideari buruzko hausnarketaren eta eztabaidaren inguruko askotariko interes-ildoak egituratzen dituztenak. Tabakalerak, hainbat programazio-ardatzen bitartez, gizarte garaikideari eragiten dioten gaiak hurbildu nahi dizkio publikoari.

Egonaldien nazioarteko deialdiak programazio-ardatz horiei jarraitzen die, eta gure programako arloak elkarrekin lotzeko asmoa duela erakutsi du; horrenbestez, funtsezko funtzioa du prozesu honetan. Hala, aukera ezin hobea eskaintzen du hala bertako nola nazioarteko eragile berriekin lankidetzan aritzeko, zeinak ezinbesteko pieza baitira Tabakalera proiektuari aberasten eta hazten laguntzeko.

2. XEDEA

Deialdi honen helburua da proiektu artistikoen garapena babestea, edozein formatutan eta diziplina artistikoa alde batera utzita; eta, era berean, tokiko sare artistikoa indartzea eta komunitate artistikoen arteko trukea sustatzea.

Deialdian parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomi Erkidegoan (hemendik aurrera EAE) bizi diren artista edo eragile kulturalak, bai eta estatukoak eta nazioartekoak ere. Aurkeztutako proiektu guztietatik **lau** proposamen aukeratuko dira.

Egonaldiak **lau eta zortzi** aste arteko iraupena izango du, 6. klausulan adierazitakoaren arabera, eta arte-proiektua garatzeko lekua, testuingurua eta denbora eskainiko ditu. Egonaldia, **2022ko irailak 26 eta abenduaren 31** bitartean gauzatuko da.



3. HAUTAGAIK / PARTE-HARTZAILEAK

Deialdian parte hartu ahal izango dute partzialki edo soilik arte garaikidearen sektorean proiektuak garatu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridiko, EAEko biztanleak, estatukoak edo nazioartekoak, dela eremu horretan jarduten direlako, dela sektore horretan ibilbide profesionalari ekin nahi diotelako.

Halaber, hainbat pertsona fisiko edo juridiko deialdiari, aurkeztu ahal izango dute, haien artean erlazio formalizaziorik eskatu gabe. Kasu honetan 5. klausulako azken paragrafoan jarritakoa eman ahal izango da.

4. HAUTATZEKO BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK

Proiektuak baloratzeko batzorde misto bat osatuko du Tabakalerak, sektoreko profesionalek eta berezko pertsonekin, 2022ko deialdi honetarako batzordea **Lorea Alfaro, Yasmin Afschar** eta **Maider López**-ek osatuko dute. Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Berrikuntza eta originaltasuna.
- Proiektuaren kalitatea eta sormena.
- Proiektuaren koherentzia eta bat etortzea hautagaiak/ek bere/n aldetik nahiz taldeko gainerako kideekin batera orain arte garatutako ibilbidearekin.
- Bideragarritasuna eta Tabakalerak dituen bitarteko eta lan-espazioetara egokitzapena.
- Tabakalerako egoiliar programarekin eta lekuko testuinguruko jarduera artistikoarekin joan-etorriko bideak sortzeko gaitasuna.
- Tabakalerak sustatutako interes-ildoetara egokitzea.
- Proiektuaren bideragarritasuna eta heldutasuna, Tabakalerako etorkizuneko erakusketa-programetan parte hartu ahal izateko.

Komisioak deialdia hutsik jo ahal izango du aurkeztutako proiektuetariko bakar batek ere ez badu egonaldirako meritua nahikorik biltzen. Era berean, egonaldi honetarako zuzendutako baliabideak beste egonaldi mota batetarako edo eta Tabakaleran garatzen den beste ekitaldi batetarako esleitu ahal izango ditu.



5. EGONALDIRAKO LAGUNTZA

Egonaldia Tabakalerak Donostian dituen instalazioetan egingo da. Programak prestazio hauek eskaintzen ditu:

1. Bidaia eta ostatua:

1.1 EAetik kanpo bizi direnentzat:

- Joan-etorriko bidai bat bere ohizko bizilekutik edo lekutik unean dagoen tokitik.
- Gela bikoitza (banakako erabilera), bainugela eta lanerako txoko batekin wifiarekin; sukaldea eta egongela partekatuak. Ereku komun horretarako sarbidea indarrean dagoen osasun-egoeraren eta zentroak ezarritako erabilera-arauen arabera arautu ahal izango da.

1.2. EAE-n bizi direnentzat:

- EAE-ko bizilekutik joan eta itzuliko bidaia.
 - Donostia edo ingurutik kanpo bizi bada, ostatua ere izan ahalko du, aurreko puntuan aipatutako ezaugarri berdinekin, edo/eta 500€ko gehieneko kopurua hilabetero, garraiorako.
2. Aseguru medikua, artista edo eragilea Europakoa ez den kasuan.
 3. Egonaldiko hilabete bakoitzeko 1.000 euro gordin, dieten eta mantenuaren kontzeptuan.
 4. Lanerako espazio bat Tabakaleraren ekoizpen-gunean, oinarrizko behar guztiekin: argia, korrante hartuneak, proiektu bakoitzerako oinarrizko altzariak.
 5. Sukalderako eta gune komunetarako sarbidea.
 6. Tabakaleraren sorkuntza-liburutegi espezializatuko funtsetarako eta Medialab-en funtsetarako sarbidea.
 7. Irudi eta soinu edizioko estudioetara eta plato/praktika eszenikoetarako espaziora sarbidea bai eta maileguan dagoen ikus-entzunezko materialera ere.
 8. Baliabide teknikoak eta Tabakalerako lan-taldearen laguntza, behar eta aukeren arabera.
 9. Laguntza ekonomiko gehigarria, 2.500€ gehienez, ekoizpen-prozesuari dagozkion gastuak estaltzeko asmoz, nahitaez aipaturiko ekoizpenera zuzenduko direnak. Ekipamendu teknologikoen eta material



bibliografikoen erosketak ez dira onartuak izango. Ekoizpenera bideratutako kopuru hori xede horretarako esleitutako Tabakalerako langileek kudeatuko dute. Tabakalerak ez du bere gain hartuko esleitutako taldeak aldeztu aurretik adostu eta onetsi ez duen gasturik. Egoiliarrek 2.500 €ko aurrekontutik, gehienez 500 € bideratu ahal izango ditu berezko ordainsari gisa, fakturak dagokion epean aurkeztuta. Horretarako, indarreko legediaren arabera eskatutako betekizun guztiak bete beharko ditu deialdi honen ebazpenaren unean.

Azkenik, epaimahaia eta proiektuen jarraipena egingo duen batzordeak, Lorea Alfaro, Yasmin Afschar eta Maider López-ek osatua, garatuko den proiektuaren jarraipena egingo du egonaldiak irauten duen bitartean (batzordearen egoeraren arabera presentzialki zein online izan ahalko dira), baita testuinguruan jartzeko lana ere; horretarako, egoiliar bakoitza harremanetan jarriko du lurraldeko ikuspegiaren parte diren hainbat eragile, proiektu eta ekimenekin, horren bidez harremanak eta loturak sortzen laguntzeko xedez. Horretarako, egoiliarren prestasun osoa eskatuko da egonaldian zehar.

Ohar argigarria: Aukeratutako proiektua kolektibo batek aurkeztu badu (hainbat pertsona fisiko edo juridikok, elkarren arteko harremanak formalizatzeko 3. klausulako bigarren lerrokadan adierazitako moduak bete beharrik izan gabe), adierazitako prestazioak kolektiboak berak izendatutako pertsona fisikoari emango zaizkio, eta Tabakalerak diskrezioz erabakita. Aldeztu aurretik finkatutako aurrekontuan oinarrituta, hala dietak nola ostatua eta egonaldiaren denbora egokituko dira. Oinarrietan ezartzen den zenbatekoa ez da inolara ere proposamena bidaltzen duten pertsona kopuruarekin biderkatuko.

6. EGONALDIAREN IRAUPENA ETA GARAPENA

Egonaldiak lau eta zortzi aste arteko iraupena izango du, **2022ko irailaren 26 eta abenduaren 31 bitartean** gauzatuko da. Batzordearekin batera adostuko da egonaldiaren iraupen zehatza, Tabakalerak bere programazioan barruan dituen aukera eta konpromisoen arabera.

7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdira aurkezteak honako konpromiso hauek onartzea dakar:

- Onartutako eskaera bertan behera utziz gero, hautagaiak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko du.



- Adostutako datetan justifikaziorik gabe lan-espaziora huts egiteak egonaldia eta emandako laguntzak bertan behera uztea ekar lezake.
- Egonaldia bera eta haren inguruan sortutako jarduerak Tabakalerak egonaldi-programaren eta lan-espazioak lagatzeko programaren inguruan garatzen duen programazioan sartu ahal izango dira.
- Tabakalera izan eta gero, beren egonaldiari buruzko memoria bana aurkeztu beharko dute egoiliarrek.
- Egonaldia obra edo argitalpenen bat ekoizteko erabiliz gero, Tabakaleraren izena jarri beharko da kredituetan.
- Tabakalerako espazioaren erabileraren arauak jarraitu.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Izena emateko epea **2022ko otsailak 28ko 12:00etatik 2022ko apirilak 10 23:59ak [UTC+1] arte egongo da zabalik**. Deialdiaren emaitza, **2022ko maiatzaren 30ean jakinaraziko da**. Hautagaiak astebeteko epea izango du egonaldiaren onarpena egiteko.

Izen-ematea Tabakalerako webgunearen bitartez egitea beharrezkoa da; horretarako, izen-emate orria bete eta jarraian zehazten den hurrenkeran, hurrengoko dokumentazioa atxikitu beharko da:

1. Harremanetan jartzeko datuak: izena, abizenak, helbidea, e-maila, harremanetarako telefono-zenbakia eta NAN zenbakia. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide izateko.
2. Proiektuaren deskribapena eta hautagaiek zergatik egin nahi duten proiektuaren fase hori Tabakalerako egoiliar diren bitartean (gutxienez 500 hitz, gehienez 1000).
3. Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.
4. Proiektu garapenerako gorabeherako aurrekontua, bai eta premia guztien aurreikuspena ere.
5. Egoiliar den aldirako aurreikusitako lan-egutegia.
6. Egonaldirako denboraldi egokiena, lehen eta bigarren aukerak.
7. CVa eta bibliografia edo historia laburra (gehienez 500 hitz).

Dokumentazio guztia PDF formatuko (gehienez 10 mega, 10 orrialde) dokumentu baten bitartez helaraziko da; dokumentuaren izena modu honetara adierazi beharko da: `Izena_abizena_modalitatea; adibidez: martin_bilbao_arte_proiektua`.



Bestetik, helarazten den **dokumentazioa euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez** egongo da idatzita. Euskaraz edo gaztelaniaz baldin bada, **nahitaez laburpen bat atxikituko da ingelesez**. Hala izango ez balitz epaimahaiak proiektua ezeztatzeko eskubidea izango du.

Hautatua izanez gero, hautagaiek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte 10 eguneko epean, hautatuak izan direla jakinarazten zaienetik kontatzen hasita:

- NANaren, IFKren edo pasaportearen kopia.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 6o. artikuluan deskribatutako egoeraren batean sartuta ez egotearen adierazpena. Dokumentu hau Tabakalerako web-orritik deskargatu daiteke, eta modalitate bakoitzari dagokion deialdian aurkituko da. Kolektiboen kasuan, adierazpen horrek hautagai guztiei buruzkoa izan beharko du.

9. JABETZA INTELEKTUALA

Hautagai edo parte-hartzaile eta hautatutako onuradun guztiek bermatuko dute, bai (i) eskaeraren alorrean, bai (ii) oinarri hauen xede diren baliabideak erabiltzen dituen proiektua gauzatu bitartean Tabakalerari ematen dioten dokumentazio grafikoa, testuala edota ikus-entzunezkoa jatorrizkoa dela eta ez duela hirugarrenen jabetza eskubiderik urratzen. Ondorioz, Tabakaleraren aurrean edo haren hirugarren kolaboratzaileen aurrean erantzungo dute, material horien inguruan hirugarrenek jabetza intelektualaren harira erreklamazioaren bat aurkeztuz gero; gainera, kalte-ordaina eman beharko diete entitate horiei, adierazitako kontzeptuekin zerikusia duten erreklamazioek sor diezazkieten kalte eta galera guztiengatik.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari edozein euskarritan erabiltzeko aurkeztutako dokumentazio grafikoa, testuala edo ikus-entzunezkoa, oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta laguntza horiek jasotzen dituen proiektua exekutatzeke xede bakarrarekin.

Aurreko guztiak ez die kalterik egingo egile-eskubide moralei eta dokumentazio grafikoaren, testualaren edota ikus-entzunezkoaren gaineko jabetza intelektualaren ondare-izaerako eskubide guztien titulartasunari. Dokumentazio horiek onuradunenak izaten jarraituko dute.



10. DATU PERTSONALEN BABESA

Hautagai edo parte-hartzaileei jakinarazten zaie oinarri hauek onartzearekin batera baimena ematen diotela Tabakalerari eskaera aurkezteko unean eta oinarri hauen xede diren baliabideekin lagundutako proiektua gauzatzean emandako datu pertsonalak tratatzeko, baldin eta hautatuak izaten badira. Tratamendu horren xedea izango da eskaera izapidetu eta kudeatzea, baita esleitzen diren laguntzak baliatzea, eta, gero, laguntza horiek jasotzen dituen proiektua hedatzea.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta horretarako betebeharrak legala baldin badago. Halaber, jarraian datorren II. klausulan xedatutakoa betez, laguntza jaso duten onuradunen irudia eta izena hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie Tabakalerak oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta haiekin lagundutako proiektuak gauzatzeko erabiliko dituen jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan.

Testuinguru horretan, adierazten da datu pertsonal horiek aurkeztea beharrezkoa dela; izan ere, datu horiek ez badira aurkezten, ezin izango dira kontuan hartu laguntzaren eskaera eta deialdiako parte-hartzea.

Hautagaien edo parte-hartzaileen datu pertsonalak gorde egingo dira haien proposamena baloratzeko eta, hala badagokio, laguntzak emateko eta baliatzeko kudeaketa egiteko behar-beharrezkoa den denboran, bai eta Tabakaleraren legezko betebeharrak betetzeko kontuan hartu beharreko kontserbazio-epe gehigarrian ere.

Edonola ere, hautagaiei edo parte-hartzaileei eta hautatutako onuradunei jakinarazten zaie honako eskubide hauek dituztela: (i) euren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatuzko, datu horien tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasuna eskatzeko eta tratamenduari uko egiteko. Horretarako, pgaraikideak@tabakalera.eu helbide elektronikora bidalitako eskaera egin beharko dute; (ii) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren edo beste edozein kontrol-agintaritzaren eskudunen aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea, bereziki euren eskubideak baliatzean gogobeteta geratu ez badira.

11. IRUDI-ESKUBIDEAK

TABAKALERA



Oinarri hauek onartzearekin batera, hautatutako onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari honako hauetarako: (i) baliabide tekniko egokien bidez haien irudia erregistratzeko (argazkiak, bideoak, etab.); (ii) irudi horiek eta izena eremuak-en webgunean eta beste edozein euskarritan, bai fisikoa eta bai elektronikoa, erabili eta erreproduzitzeko, bere kontrolpean edo hirugarren laguntzaileen kontrolpean. Horren xede bakarra izango da oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzea eta haiekin lagundutako proiektuak exekutatzea. Baimen hori ezeztagarria da.

12. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +: pgaraikideak@tabakalera.eus

www.tabakalera.eus